



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena

2017ko apirilaren 12an, 13:00ak direnean, Ohiz Kanpoko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. OIHAN ENKANTEA.

Udalbatzak erabaki zuen, 2017ko urtarrilaren 24ko Osoko Bilkuran, salgai jartzea oihan lotearen aprobetxamendua, gutun-azal itxiaren bidezko enkante irekian. *Amezitia* eta *Asurdi* alderdietan dago lotea (503. eta 504. zenbakiak Nafarroako Onura Publikoko Mendien Katalogoan) eta hauek dira haren ezaugarriak: lote bakarra; 3.100 haritz amerikar, 620 metro kubiko enbor txiki/egur egiten eta 3.100 euro balio dutenak, BEZa kanpo.

Proposamenak aurkezteko zabaldutako epean bat bakarra aurkeztu da. Idazkariak ireki du eta hau izan da emaitza: Kenari Erasun San Sebastianek 3.800 euroko eskaintza egin du. Jarraian, aho batez erabakitzen da:

1. *Amezitia* eta *Asurdi* alderdietako oihan lotea esleitzea Kenari Erasun San Sebastiani, 3.800 eurotan gehi dagokion BEZa.

2. Akordio hau jakinaraztea adjudikatariari eta Nafarroako Gobernuari.

2. HIRIGINTZA PLANGINTZAKO HITZARMENA.

Idazkariak irakurri du Nafarroako Gobernuak bidali duen lankidetza hitzarmenaren zirriborroa —2017ko apirilako bertsioa—, Udalaren Plan Orokorra egiteko. Udalbatzak aho batez erabakitzen du:

1. Hitzarmenaren eduki osoa onestea.

2. Akordio hau jakinaratzea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari.

Eta bertzerik ezean, 13:30 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.